BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4049

EBAZPENA, 2020ko irailaren 25ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen 2020ko deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2020ko apirilaren 22ko Ebazpenaren bidez (ekainaren 3ko EHAA 107. zk.), 2020. urterako dirulaguntzen deialdia egitekoa, memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

Ebazpen horren 14. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea I. eranskinean ageri diren erakundeak atzera egiteko aurkeztutako eskabideak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Ez onartzea II. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.– Memoria demokratikoa berreskuratzeko liburu eta dokumentalak egiteko laguntzak ematea III. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2020ko irailaren 25a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

I. ERANSKINA

ESKATZAILEEK ATZERA EGIN DUTE ESKABIDEAN

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egiteko arrazoia
2	Urnietako Udala	Liburua: Urnieta 1936-1945 Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan.	Atzera egin zuen eskabidea deialdi zuzenean egin ahal izateko.
11	Asociaciaón ONG Pausu Medeia	Dokumentala: Bortxazko lanak Behe Bidasoan	Ez dago bukaerako muntaketa edo/eta postprodukzio fasean.
20	Asociación Agrupación Etnológica Aztarna de Amurrio	Liburua: Gorbea, rutas para la memoria	Ez dago bukaerako edizio edo/eta maketazio fasean.

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
3	Raúl Arza Vélez	Historia grafikoa: QUATER. Un viaje hacia la libertad	Ez ditu betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 1 eta 3.2 artikuluak. Ez da ebazpenaren xedea: historia grafikoa da, eta, testuak ez ditu 100.000 karaktere.
8	Asociación Aldarte Centro de Atención a gays y lesbianas	Dokumentala: Lesbianas con historia: memoria histórica lesbofeminista	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 2. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
9	Asociación Memorialista Balmaseda 1937	Dokumentala: El antifranquismo de los 70 en Balmaseda	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 2. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
10	BOZAK Mujeres por el derecho a la comunicación	Documental: Colon Pasealekua: Acera de los reales y de la peseta	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 2. artikulua. Ez dago bukaerako muntaketa eta/edo postprodukzio fasean.
12	Itziar Garin del Pozo	Liburua	Ez ditu betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 3.2. eta 8. artikuluak. Ez dago bukaerako edizio eta/edo maketazio fasean eta ez da erakunde onuraduna.
16	Erein SA	Liburua: Retrato de Xabier Lete en 1978	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 1. artikulua. Ez da ebazpenaren xedea.
17	Erein SA	Liburua: ESEI, 1976-1981. Claves doctrinales para entender la Transición vasca.	Ez du betetzen apirilaren 22ko ebazpenaren 3. artikulua. Ez da diruz lagundu daitekeen jarduera.
18	Urko Garamendi Meabe	Liburua: Homenaje a los pueblos libres	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 1. artikulua. Ez da ebazpenaren xedea, literatura-lan bat da.
21	Elkar Argitaletxeak SL	Liburua: Los Deportados de ETA	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 3. artikulua. Ez da diruz lagundu daitekeen jarduera.
22	Elkar Argitaletxeak SL	Liburua: De la hoguera al Lapiz Rojo	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 7. artikulua. Ez da diruz lagundu daitekeen jarduera.
24	Intxorta 1937 Kultur Elkartea	Liburua: Winnipeg. De Francia a Chile, diario de una Travesía.	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 2. artikulua. Ez dago bukaerako edizio eta/edo maketazio fasean.
27	Ekai Center Fundazioa	Liburua: Frankismoaren Eragina informazio eskubidean	Ez du betetzen apirilaren 22ko Ebazpenaren 3.2 artikulua. Ez da diruz lagundu daitekeen jarduera.

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
26	Asociación Matxitxako Elkartea	Dokumentala: Matxitxako: Apuntes sobre la Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi	10.000,00
14	Apaizak AIE	Dokumentala: Apaiz Kartzela	10.000,00
15	Heidi I. Otaduy Diez	Dokumentala: Jesus Carrera Olaskoa	10.000,00
6	Asociación BCA37UK Euskadi	Liburua: Solo serán tres meses	2.427,04
7	Asociación BCA37UK Euskadi	Liburua: Los niños vascos recuerdan y son recordados	2.256,75
25	Iker Criado - Jon Azkorra C.B.	Dokumentala: Palabras para un fin del mundo	10.000,00
1	Iban Toledo Ibañez	Dokumentala: Bolante baten historia	10.000,00
4	Fundación Indalecio Prieto	Liburua: Homenaje a Julián Zugazagoitia Mendieta y Francisco Cruz Salido	3.525,00
23	Elkar Argitaletxeak SL	Liburua: El proceso de Burgos	2.328,65
13	Asociación Cultural Ateneo Republicano de Álava Eraiki	Dokumentala: Cuelgamuros. Una historia Inexplicable.	3.900,00
5	Oreki Fundazioa	Liburua: La sociedad vasca tras la violencia	4.045,18
19	Erein SA	Liburua: Burgos: Juicio a un pueblo	5.000,00